

**ADMINISTRARI BALIOANIZTUNEN 3 LANPOSTU HORNITZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deitutako plazak**

Oinarri espezifikoa hauek, onetsitako oinarri orokorrekin batera, barne-igoerako sistemaren bidez eta oposizio-lehiaketaren bidez deitutako plantillako langile lan-kontratadun finkoen hautaketa-prozesua arautuko dute, 2021eko EPEko ADMINISTRARI BALIOANIZTUNEN 3 lanpostu hornitzeko. Lanpostu horiek derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna dute, eta 3. lanbide-sailkapeneko taldekoak dira (C taldea, C-1 azpitaldea).

Bigarrena. — Deitutako plazak bete beharreko baldintza espezifikak

- a) Langile lan-kontratadun finkoa izatea Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Administrazio Laguntzaile lanpostuan.
- b) Administrazio laguntzailearen lanpostuan bi urtez zerbitzu aktiboan egon izana.
- c) Batxilergoko titulazioa edo titulazio teknikoa (maila ertaineko LH) edo hamar urteko antzintasuna izatea C2 azpitaldeko kidego edo eskala batean, administrazio arlo funtzionalean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzazko Errege Dekretuak (Enplegu Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen testu bategina onetsi zuenak) 76. artikuluan eta uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoarenak) hamaseigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritik.
- d) Administrazio lanpostuan sartzeko gainerako betekizun orokorrak betetzea.
- e) IVAPEk emandako euskarako 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edukitzea edo euskaraz badakiela egiaztatzeko titulu edo ziurtagirietako bat, Hizkuntzetarako Europar Erreferentzi Marko Bateratuko B-2 mailarekin parekatuetakoa.
- f) Diziplinazko espediente baten bidez zerbitzutik aldenduta ez egotea, edo enplegu edo kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea ebazpen judizial baten bidez.
- g) Eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta beren gaitasun-maila bateragarria izatea bete nahi den lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Hori Udalaren Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat; hala ere, egokitzapenak egin ahal izango dituzte, hala iritziz gero, betiere izangaien adina eta eginkizun zehatzak aintzat hartuta.
- h) Aplikatzekoak diren gainerako baldintzak, indarrean diren oinarri orokorrean ezarritakoak dira eta oinarri espezifikoei batera argitaratu dira.

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Era berean, gainerako baldintza guztiak bete behar dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, gaitasun funtzionalari buruz g) apartatuan ezarritakoa izan ezik; kasu horretan, udalaren zerbitzu medikoek egiaztatu behar dute langile finko izendatu baino lehen.

Hirugarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua eta lekua**

Eskabidea 2 modutan egin daiteke:

- Eskabide elektronikoa, ahal dela: bete beharreko eredu ofiziala eta jarraitu beharreko prozedura Erakundearen web-orrian daude.
- Eskabidea paperean: Bete behar den eskabidearen eredu ofiziala II. eranskinekoa da. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren tokietan aurkeztu ahal izango da. (Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zena).



Baliabide teknikoak, aholkuak edo laguntza behar izanez gero, hona jo daiteke: Kalitate Arloa, Giza Baliabideak eta Gizarte Segurantza. Terminus eraikina. Nafarroa kalea 5, 5. solairua. Bilbo.

Eskabidean, izangaiak hauek adierazi beharko ditu:

- Bere erantzukizunpean adieraziko du deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela; eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna baino lehen eduki behar dira beteta.
- Eskabidean hautaketa-probak zein hizkuntzatan egin nahi diren adierazi behar da: euskaraz edo gaztelaniaz. Ez bada ezer adierazten, gaztelaniaz egingo dela ulertuko da.

Bilboko Udal Etxebizitzak bere esku duen espediente pertsonalean lehenagotik jasota dauden baldintzak eta merezimenduak alegatutakotzat joko dira prozesu honetan, eta ofizioz egiaztatu eta balioztatuko ditu.

Hala ere, Erakundeak bere esku duen espediente pertsonalean jasota ez dauden merezimenduak eskabidean alegatzen badira bakarrik baloratuko dira lehiaketa-fasean. Horretarako, izangaiak zerrenda batean aipatuko ditu eta behar besteko moduan identifikatuko ditu.

Parte hartzeko betekizunak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatuko beharko da, hala badagokio, epaimahaiak edo Udal Etxebizitzaren Kalitate Arloak, Giza Baliabideak eta Gizarte Segurantzak berariaz eskatzen duenean.

Titulazioaren betekizuna ez da egiaztatu beharko baldin eta parte-hartzaileak baime-na ematen badiu Bilboko Udal Etxebizitzak TEAri titulu akademikoen datuak bitarteko telematikoen bidez kontsultatzeko eta egiaztatzeko, eta datu horiek dagokion erregistroan jasota badaude.

Baimen horiek eman ezean, parte-hartzaileak bere espediente pertsonalean ageri ez diren egiaztapenak aurkeztu beharko ditu.

2. *Aurkezteko epea*

Eskabidea hogeita (20) egun balioduneko epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Larunbatak, igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodunak ondorio horietarako.

Laugarrena. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta plantillako langile lan-kontratudun finkoen lanpostuak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian, gutxienez, epaimahaiburua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak nagusiki teknikariak izango dira, eta espezialitatearen printzipioa izango da nagusi. Beraz, kide guztiek deialdiko lanpostuetan eskatzen den titulazio berdina edo maila handiagoko titulazioa izango dute, eta, gutxienez, kideen erdiek hornituko den lanpostuari dagokion ezagutza arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta, hala ez izatea justifikaturik egon ezean, gizonen zein emakumeen ordezkaritza, bakoitzetik, gutxienez %40 izango da.

Epaimahaia, egoki baderitza, aholkulari espezialistak eduki ahal izango ditu hautaketa-prozesuko probaren batean edo guztietan kideei laguntzeko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 31.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz; aholkuak eta laguntza teknikoak eskainiko dute beren espezialitate teknikoko ariketetan, eta hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez, ordea, botoa emateko eskubidea.

**Bosgarrena. — Hautaketa-prozesua**

Izangaiak lehiaketa-oposizioaren bidez hautatuko dira, barne-igoerako txandan. Oposizio-fasea (bi ariketa) eta lehiaketa-fasea (oposizio-fasea gaingitu duten pertsonen merezimenduak baloratuko dira) egingo dira, hurrenez hurren.

A) Oposizio-fasea

Oposizio-fasean ariketa bat egingo da, ezagutza teoriko eta praktikoak bateratzen dituen, derrigorrezkoa eta baztertzaila. Fase honetan, test motako 60 galderako gal-detegi bati erantzun beharko zaio idatziz. Galdera horietako 40 ezagutza teorikoei buruzkoak izango dira, eta 20 kasu praktiko bati edo gehiagori buruzkoak. Galdera guztietatik, 50 izango dira ebaluagarriak, eta 10 erreserbakoak. Galderak deialdiko I. eranskinean jasotako gaitetik hartuko dira (epaimahaiak proposatutakoak). Galderei erantzuteko epea eta baldintzak epaimahaiak erabakiko ditu.

Galdetegi horrek lau erantzun izango ditu aukeran, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena. Erantzun zuzen bakoitzagatik puntu bat emango da. Bi erantzun ematen bada, erantzunik ematen ez bada edo oker erantzun bada, ez da punturik kenduko eta, beraz, zuzen erantzundakoei ez zaie baliorik kenduko.

Galdetegi horretako galderak aurretik argitaratutako galdera sorta batetik aterako dira, erantsitako programako gaitan oinarrituak.

Eragiketa horiek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin barik egingo dira.

Oposizio-fasean gehienez 10,00 (hamar) puntu lor daitezke, eta gutxienez 5 (bost) puntu lortu beharko dira hura gaingitzeko.

Oposizio-aldiko ariketetan ezagutu beharreko araudia deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean dagoena izango da.

Oposizio-fasean gehienez 10,00 (hamar) puntu lor daitezke, eta gutxienez 5 (bost) puntu lortu beharko dira hura gaingitzeko.

Abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuko 8. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen dutenarekin bat etorritik, Epaimahaiak deialdi honetako probak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen eran egokitzeko ahalmena izango du, desgaitasunen bat egiaztatu eta beren eskabidea egiterakoan egoera hori adierazi duten pertsonentzat, egokitzen horien bidez probaren izaera hutsaldu gabe, betiere, edo probaren eskakizun maila kaltetu edo murriztu gabe. Zentzu horretan, egokitu diren probak gainerako izangaiak egiten dituzten baldintza berbetan egiten direla bermatu beharko da.

B) Lehiaketa-fasea

Lehiaketa-fasea, berriz, behin oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da, oposizio-fasea gaingitu duten izangaiekin. Izangaiek eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak edo Bilboko Udal Etxebizitza TEAk bere esku duen espediente pertsonalean ageri diren merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Ez da baztertzaila izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizioko ariketak gaingitzeko.

Lehiaketa-fasean, gehienez ere, 4,50 puntu (lau puntu eta erdi) atera ahal izango dira.

Merezimenduak egiaztatzea Bilboko Udal Etxebizitzak TEAk bere esku duen espediente pertsonalean agertzen ez diren merezimenduak soilik egiaztatu beharko dira, Era-kundearen web-orrian argitaratuko den iragarkian emandako epean, betiere.

Merezimenduak baloratzea Merezimenduak oinarri hauetan eta oinarri orokorretan deskribatzen denaren arabera baloratuko dira, eta ezingo da besterik baloratu.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.



Honako hauek dira baloratu daitezkeen merezimenduak:

- a) Antzinatasuna, gehienez ere 2,00 (bi) puntu. Administrazio Publikoan Administralari Laguntzaile lanpostua betetzen emandako zerbitzuengatik, 0,20 puntu zerbitzuko urte oso bakoitzeko edo 6 hilabetetik gorako aldi bakoitzeko.
- b) Lan esperientzia, gehienez ere 2,50 puntu (bi puntu eta erdi): Bilboko Udal Etxebizitzetan Administralari kategoriari dagozkion lanpostuak betetzeagatik, 0,25 puntu zerbitzuko urte oso bakoitzeko edo 6 hilabetetik gorako aldi bakoitzeko.

Lanbide-esperientziaren ondorioetarako, urteak 365 egunekoak dira eta 6 hilabetetik gorako zatiak 183 egun edo gehiagokoak.

Seigarrena. — Behin betiko sailkapena

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, Epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea gainditu duten pertsonen puntuazioa eta lehiaketa-fasearen merezimenduen balorazioa batuta erabakiko da hurrenkera. Kopurua ezingo da izan eskainitako plaza guztiena baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera. Modu berean, Epaimahaiak izendapen-proposamena egingo du, zerrenda hori Erakundearen presidenteari bidalita. Era berean, azken saioko akta bidaliko zaio, hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu baina lanposturik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori lanpostua lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar bakarrik, ez beste ezertarako. Hala ere, zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzekoa ere. oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Zazpigarrena. — Dokumentuak aurkeztea

Lanean hasteko proposatzen diren pertsonak ez dute agiri bidez egiaztatu beharko betetzen dituztela deialdi honetan parte hartzeko bidea ematen dien lanpostuan sartzeko baldintzak eta betebeharrak.

Gainerako baldintza eta merezimendu baloratuak egiaztatzeko agiriak baizik ez dituzte aurkeztu beharko, jatorrizkoak nahiz behar bezala konpultsatuta, non eta Bilboko Udal Etxebizitzak TEAk daukan bakoitzaren espediente pertsonalean jasota ez dauden dagoeneko.

Gaitasun funtzionalari dagokionez, udalaren zerbitzu medikoek txostena egin behar dute kasu guztietan.

Zortzigarrena. — Lanean hasteko proposamena

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-ordena lortzeko, oposizio-faseko puntuazioari lehiaketa-faseko puntuazioa gehituko zaio.

Lanean hasteko proposamenak interesdunei jakinarazi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, baita Udal Etxebizitzak TEAren iragarki-taulan eta web-orrian ere.

Bederatzigarrena. — Lanean hastea

Organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanean hasiko dira, eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte.

Ezarritako epearen barruan eta justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanean hasten ez direnak karguari uko egin diotela ulertuko da, eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horietan, Erakundeko presidentek proposatuko du oposizioari ariketak gaindituta eta ariketen eta merezimenduen faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortu dituzten izangaiak izendatzea, kargua uztearen ondorioz deitutako lanpostu-kopuruaren barruan sartzen badira, oinarri espezifiko hauetako zazpigarrenean adierazita-koarekin bat etorrira.

**Hamargarrena. — *Aurka egiteko bideak***

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Zuzendaritza Kontseiluari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA**

1. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (I): Prozedurako interesdunak (3-8 eta 11-12 artikulua). Administrazio publikoen jarduketako arau orokorrak (13-15 artikulua).

2. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (II): Ofizioz hasia (58-65 artikulua). Hasiera, interesdunak eskatuta (66-69 artikulua). Atzera egitea, uko egitea, eta prozeduren iraungipena (93-95 artikulua).

3. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (III): Administrazio errekurtsoak (112-120 artikulua), bereziki nahibadako berraztertze errekurtsoa eta berrikusteko errekurtso berezia (123-126 artikulua).

4. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa (I): Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak (15-22 artikulua). Zehatzeko ahalaren printzipioak (25-29 artikulua).

5. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa (II): Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna (32-37 artikulua).

6. Administrazio publikoaren zerbitzutan dauden langileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoak) adierazten duenaren arabera (I): Eskubideak (14-20 eta 47-51 artikulua).

7. Administrazio publikoaren zerbitzutan dauden langileak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitakoak) adierazten duenaren arabera (II): Betebeharrak (52-54 artikulua).

8. Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Hitzarmen Kolektiboa, 2008ko abenduaren 17ko 242 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa, baita erakundearen Enplegatuaren Atarian ere.

9. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (I): Xedea eta aplikazio-eremua (1-3 artikulua). Sektore publikoan kontratatze gaitasuna (65-70 artikulua).

10. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (II): Kontratazio-espedientea: hasia eta edukia, bereziki kontratu txikien espedientea (116-120 artikulua). Kontratuak esleitzea prozedura irekietan (156-159 artikulua).

11. Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana.

Oharra: Bilboko Udalaren Berdintasunerako V. Planari (2020-2023) buruzko gaiaren edukia Udalaren webgunean dago argitaratuta: (www.bilbao.eus >Ayuntamiento> Áreas Municipales> Igualdad>).

12. Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua). Langileen kontsulta eta parte-hartzea (33-40 artikulua).

13. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuak babesteko printzipioak (4-10 artikulua). Gardentasuna eta informazioa. Pertsonen eskubideak (12-18 artikulua).

14. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (I): Gobernu irekia eta gardentasuna. Xedapen orokorrak eta publizitate aktiborako betebeharrak (47-52 artikulua).



15. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (II): Informazioa eskuratzeko eskubidea (62-66 artikulua).
 16. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (III): Herri-tarren parte-hartzea (67-77 artikulua).
 17. 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Pu-blikoen zehatze-ahalari buruzkoa: Zehatzeko prozedurak izapidetzea (34-43 artikulua).
 18. Bilboko Udal Etxebizitzak Tokiko Erakunde Autonomiadunaren Estatutuak eta ondoren bertan egindako aldaketak, 2004ko otsailaren 10eko 27 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta 2015eko abuztuaren 13ko 154 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofi-zialean argitaratutakoak. II. titulua: Gobernu Organoak; III. titulua: Ondarea, Ogasuna eta Aurrekontuak; eta IV. titulua: Erregimen juridikoa.
 19. Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren araudi orokorra, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa 2012ko irailaren 20an.(3.artikulutik-24.artikulura).
 20. Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren araudi orokorra, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Zuzendaritza Kontseiluak onartutakoa 2012ko irailaren 20an.(25.artikulutik-73 artikulura).
 21. 10/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko En-titateen Aurrekontuari buruzkoa: tokiko entitateen aurrekontua (3-9 eta 14-18 artikulua).
 22. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onetsi zuena: Xeda-pen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio-espediente elektronikoa (46-53 artikulua). Dokumentuen artxibo elektronikoa (54. eta 55. artikulua).
 23. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen ditue-na: Biztanleen Udal Errolda (15-18 artikulua). 1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Tokiko entitateen biztanleriaren eta lurralde-mugaketaren erregelamendua onetsi zuena: udal errolda (53-80 artikulua).
- Oharra: Gai honen edukia Udalaren web-orrian dago (www.bilbao.eus Bilbao.eus >Sede electrónica>Ciudadanía>Catálogo de trámites>Temas> Padrón de habitantes

**II. ERANSKINA / ANEXO II**
ESCARIA EGITEKO EREDUA / MODELO DE SOLICITUD**ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN**
ADMINISTRATIBOAK / ADMINISTRATIVAS/OS

1. Deialdia / Convocatoria					
Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria:					
Sartzeko sistemak Sistemas de acceso	Lehiaketa Concurso		Oposizioa Oposición	Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición	
Txanda Turno	Askea Libre		Barne sustapena Promoción interna	Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad	

2. Norberaren datuak / Datos personales				
Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido		Izena Nombre	
NAN / AIZ DNI / NIE	Naziotasuna Nacionalidad	Jaioteguna Fecha de nacimiento		Sexua / Sexo E. / M. ☐ G. / H. ☐
Telefono finkoa Teléfono fijo	Telefono mugikorra Teléfono móvil		Posta elektronikoa Correo electrónico	

3. Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones						
Helbidea Dirección		Ataria Portal	Eskailera Escalera	Solairua Piso	Eskua Mano	Atea Puerta
PK CP	Herria Localidad	Probintzia Provincia			Herrialdea País	

4. Euskara / Euskera			
Profila egiaztatzen dut (jarri «X» dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una «X» el correspondiente)			
1HE / PL1 ☐	2HE / PL2 ☐	3HE / PL3 ☐	4HE / PL4 ☐

5. Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición	
Euskara / Euskera ☐	Gaztelania / Castellano ☐

6. Betebeharrak / Requisitos	
Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria	



7. Merituak / Méritos

Merituen zerrenda / Relacion de méritos	
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriko, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ o NO:	
	Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A. an indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak administrazio Publikoen beste erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A. ri, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, ziurtagiri, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu, bere izapidetze administrazioarako, hauek esduragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen daozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, certificados, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A. ri nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

LEGE-INFORMAZIOA

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

INFORMACIÓN LEGAL

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

☐	ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--------------------------	--

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK T.E.A.
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO



DATUEN BABESA

Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako

Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilboko Udal Etxe-bizitzak T.E.A. da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001 Bilbo).

Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira hautaketa-prozesuak irauten duen bitartean, sor litekeen lan-poltsa indarrean dagoen bitartean (lan-poltsa horretan sartzen bazara) eta administrazio honekin ezar litekeen zerbitzu-harremanak irauten duen bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litekeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Baimenik ematen ez baduzu aurretik adierazi diren arrazoietan oinarriturik zure datuak tratatzeko, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimatzerik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que:

El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, número 1 5ª y 6ª planta, 48001 Bilbao).

El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, número 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras dure el proceso selectivo, mientras esté vigente la bolsa de trabajo que pudiera crearse, en caso de acceder a ella, y mientras dure la relación de servicio que pudiera llegar a establecerse con esta Administración.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10).

De no prestar el consentimiento para el tratamiento de sus datos basado en los antedichos motivos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I., domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.



O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO

Anexo III

01. ZUZENDARITZA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
10	Zuzendaria Nagusia	1001-01	1	L	B	A	KK	1		4	3	E	E	E	B	1
11	Zuzendariorde Operatibo eta Juridikoa	1101-01	1	L	N	Y	29	1	4	3	E	E	E	E	1	
17	Teknikari Juridikoa	1701-01	1	L	N	Y	24	1	9	3	E	E	E	E	1	22/05/2018
16	Administrazio Orokoreko Teknikaria	1601-01	1	L	N	Y	24	1	8	3	E	E	E	E	1	13/12/2017
25	Gizarte Langilea	2501-01	2	L	N	Y	23	2	2	3	E	E	E	E	1	25/02/2008
37	Zuzendaritzako Idazkaria	3701-01	3	L	N	Y	19B	3		2	E	E	E	E	1	
35	Salako Administrazio	3501-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	25/09/2007
30	Administralari Balonitzua	3001-01	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3001-02	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3001-03	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	31/12/2002
50	Aleazina	5001-01	5	L	N	Y	12	5		2	E	E	E	E	1	23/05/2006

02. KALITATE, GIZA BALIABIDEAK ETA ZERBITZU OROKORRETA SAILA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
14	Kalitate eta Giza Baliabideetako Arduraduna	1402-01	1	L	N	Y	26	1	7	3	E	E	E	E	1	
22	Zerbitzu Orokoreko Arduraduna	2202-01	2	L	N	Y	25	2		3	E	E	E	E	1	31/12/2002
32	Administralari Informazioa	3202-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3002-01	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3002-02	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3002-03	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3002-04	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	20/01/1998
30	Administralari Balonitzua	3002-05	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	31/12/2021

03. PLANIFIKAZIO, KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIO SAILA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
15	Planifikazio, Kudeaketa eta Administrazio Arduraduna	1503-01	1	L	N	Y	26	1	5	3	E	E	E	E	1	
23	Kontabilitate Salaren Arduraduna	2303-01	2	L	N	Y	24	2	7	3	E	E	E	E	1	
34	Kontabilitate eta Aurrekontuaren Administrazio	3403-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	20/01/1998
33	Kobrantzia eta Jasapenaren Administrazio	3303-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	09/03/1999
30	Administralari Balonitzua	3003-01	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3003-02	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	20/01/1998

04. SAIL SOZIOKOMUNITARIOA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
12	Esku-hartza Soziokomunitarioaren Arduraduna	1204-01	1	L	N	Y	26	1	6	3	E	E	E	E	1	26/10/2004
21	Esleipen Salaren Arduraduna	2104-01	2	L	N	Y	24	2	7	3	E	E	E	E	1	
25	Gizarte Langilea	2504-01	2	L	N	Y	23	2	2	3	E	E	E	E	1	31/12/2002
35	Salako Administrazio	3504-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	02/05/2000
30	Administralari Balonitzua	3004-01	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	02/05/2000
30	Administralari Balonitzua	3004-02	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	
30	Administralari Balonitzua	3004-03	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	10/10/2014
30	Administralari Balonitzua	3004-04	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	02/05/2000

05. ETXEBIZITZEN SUSTAPENERAKO SAILA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
13	Sustapen Salaren Arduraduna	1305-01	1	L	N	Y	26	1	3	3	E	E	E	E	1	
26	Sustapeneko Teknikaria	2605-01	2	L	N	Y	23	2	1	3	E	E	E	E	1	13/12/2017
30	Administralari Balonitzua	3005-01	3	L	N	Y	18	3/4		2	E	E	E	E	1	09/03/1999

06. ONDAREAREN KUDEAKETA SAILA

Lanpostu aren kodea	DESKRIBAPENA	Hondura -zerbakia	ET	F/L	LM	BE	Ordainzari -maila	BETEARRAZPEN BALDINTZAK			BALDINTZAK				LZ	Derrigorakotasun data
								ET	TIT.	HE	AM	LE	AE	JA		
20	Ondarearen Kudeaketa Arduraduna	2006-01	2	L	N	Y	25	2	1	3	E	E	E	E	1	
24	Ondarearen Kudeaketako Teknikaria	2406-01	2	L	N	Y	23	2	1	3	E	E	E	E	1	10/10/2014
38	Mantenimendu eta Gertakarien Teknikaria	3806-01	3	L	N	Y	20	3		2	E	E	E	E	1	
36	Mantenimendu eta Gertakarien Administrazio	3606-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	
36	Mantenimendu eta Gertakarien Administrazio	3606-02	3	L	N	Y	19	3		2	E	E	E	E	1	
31	Komunitateen Administrazio	3106-01	3	L	N	Y	19	3		2	E	B	E	E	1	12/06/2002
31	Komunitateen Administrazio	3106-02	3	L	N	Y	19	3		2	E	B	E	E	1	13/12/2017

ADMINISTRARI BALOIZTATZEN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO HORRITZEKO ESKAKIZUNAK (TALDEAK: 3/4 C/D): 2020ko martxoaren 27ko Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Presidentearen Ebazpenaren bidez, Bilboko Udal Etxebizitzaren Administrazio Funtzioaren Giza Baliabideak Antolatzeke Plana onartu zen, eta horren arabera, honako hauek dira administrari baloiztatzen lanpostuak hornitzeko eskakizunak:

-Sarrerako kategoria: 17. maila. Oinarriko maila da administrari baloiztatzen lanpostura sartzeko, baina administrari baloiztatzen lanpostuari dagokion lanpostuetara aldi baterako eta baze sustapen bidez atxikitzeko administrari baloiztatzen ere.

-Kordinazio lanpostuak: 18. maila. Horietan sartzeko, 3 urteko antzinatea izan behar da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren administrari baloiztatzen lanpostuan edo beste edozein administrazio publikotako administrariaren lanpostuan.



Anexo III

LITERALEN TAULAK			
ET: ERREFERENTZIA TALDEA	F/L	LM : LANPOSTU MOTA	BE: LANPOSTUA BETETZEKO ERA
1.- Graduako unibertsitate-titulua	F : Funtzionarioa	B: Berezitua	A: Izendapen askea
2.- Graduako unibertsitate-titulua			
3.- Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa			Y: Lehiaketa, oposaketa
4.- Derrigorrezko Goi Mailako Hezkuntzako gradudun titulua	L: Lan-itunpekoa	N: Normalizatua	Lehiaketa-oposaketa
5.- Eskolatzeko-ziurtagiria edo araudiaren arabera zehaztutako gaitasun profesionalaren agiria.			edo Lanpostu Sustapena
LANPOSTUAREN BALDINTZAK			
TIT: ESKATUTAKO TITULAZIOA			
TA: Taldeei atxikia	1.- APAREJADOREA ETA/EDO TITULU HOMOLOGATUAK	HE: HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
	2.- GIZARTE-LAGUNTZAILEA/GIZARTE LANGINTZA		
1 (A1)	3.- ARKITEKTOA/ARKITEKTURA	1.- 1. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
2 (A2)	4.- ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA/GRADUATUA, ELKARGOKIDEA ETA LANEAN ARI DENA, EDOZEIN MOTATAKO AUZITEGIEI AURREAN LETRADU GISA POSTULATZEKO GAITUA, GUTXIENEZ 3 URTEKO ANTZINATASUNAREKIN.	2.- 2. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
3 (C1)		3.- 3. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
3/4 (C1/C2)		4.- 4. HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
5 (E)	5.- ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN LIZENTZIATUA/GRADUATUA ETA/EDO TITULU HOMOLOGATUAK	5.- 4 TP HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	
	6.- SOZIOLOGIAN LIZENTZIATUA/GRADUATUA ETA/EDO TITULU HOMOLOGATUAK		
	7.- UNIBERTSITATEKO LIZENTZIATURA/GRADUA		
	8.- ZUZENBIDEKO, POLITIKA ZIENTZIETAKO, EKONOMIA ZIENTZIETAKO EDO ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIATURA EDO GRADUA, MERKATARITZAKO INTENDENTEA EDO AKTUARIOA ETA/EDO HORIEN BALIOKIDEAK DIREN TITULAZIOAK		
	9.- ZUZENBIDEKO LIZENTZIATURA EDO GRADUA		
BALDINTZAK	LL: LANLEKUA	OHARRA	
JM: Jarduera murriztua (B:Bai/E:Ez)	1.- Bilboko bul.		
LE: Lantsaio erdia(B:Bai/E:Ez)			
JB: Jarduera bakarrekoa(B:Bai/E:Ez)			
P: Prestasuna(B:Bai/E:Ez)			

ADMINISTRARI BALIOANIZTUNEN LANPOSTUAK ALDI BATERAKO HORNITZEKO ESKAKIZUNAK (TALDEAK: 3/4 C/D)

2020ko martxoaren 27ko Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Presidentearen Ebazpenaren bidez, Bilboko Udal Etxebizitzaren Administrazio Funtzioaren Giza Baliabideak Antolatzeke Plana onartu zen, eta horren arabera, honako hauek dira administrari balioaniztunen lanpostuak hornitzeko eskakizunak:

Sarrerako kategoria: 17. maila. Oinarrizko maila da administrari balioaniztunaren lanpostura sartzeko, baita administrari balioaniztunaren lanpostuari dagozkion lanpostuetara aldi baterako eta barne-sustapen bidez atxikitako administrari-laguntzaileentzat ere.

Koordinazio-lanpostuak. 18. maila. Horretan sartzeko, 3 urteko antzintasuna izan behar da Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren administrari balioaniztunaren lanpostuan edo beste edozein administrazio publikotako administrariaren lanpostuan